

Beharrezko tramitea da erakundeko Kontseilari Delegatua izendatu aurretik

## **Administrazio kontseiluak Kutxabanken estatutuak aldatzea proposatu du**

**2015eko apirilaren 30a.** Kutxabanken Administrazio Kontseiluak, goizean Bilbon egin duen ohiko bileran, erakundeko Gizarte Estatutuak berritzeko proposamena egin dio Akziodunen Batzorde Nagusiari, artilukatuan Kontseilari Delegatua bateratzeko helburuarekin.

Espainiako Bankuaren onespena behar duen proposamen honez gain, Administrazio Kontseiluaren araudia bera aldatzea adostu du, bai eta zenbait Batzorde Delegatuena ere.

Ikuskatzaileak erakundeko Kontseilari Delegatua izendatzeko abian jarritako prozesuaren baitan hartu dira akordio hauek guztiak, eta izendapen hori maiatzaren amaieran erabaki liteke.